

Kostaldeko babes-balioak, hondartza zementatuen kasua.



Maider Uriarte °

Gako-hitzak:
aztarna, industria, naturala, artifiziala, lehengoratu,
berreskurapena, erreferentea

Gorrondatxe

Getxoko Gorrondatxe (Azkorri izenaz ere ezagutzen da) hondartza bere giro lasai, zabaltasun eta bertan diren “paisaia” ezberdinengatik da ezaguna. Inguruan dauden Sopelako hondartzek ez bezala, ez du hainbesteko masifikaziorik jasaten, urertzean hainbat arroka aurkitzen dira eta horrek igeriketa zaildu egiten baitu.

Euskal kostaldeko hondartzen egitura tipiko bat du, labarrak eta hareatzak osatuta. Baina Atxabiribilek ez bezala (honek labarra eta behean hareta-lautada zabala du), Gorrondatxek landaredi ugari, duna bat, formazio geologiko garrantzitsuak eta beste formazio geologiko arraro batzuk ditu. **Oinak hondarretan murgiltzen ditugun bezain laster jabetzen gara toki honen berezitasunaz.**

Hondartzak ekosistema dinamikoa eta **oso aldakorrak** dira, lurrraren eta itsaso zabalaren arteko trantsizio-eremua. Sedimentuek osatzen dituzte, mareen joan-etorriak, haizearen indarrak higitzen eta eraldatzen dituztela etengabe.

Denok ikasi dugu nola higitzen diren harriak, nola sortzen diren sedimentuak, nolatan garraiatzen diren ibaietan behera, olatuek ere nola garraiatzen eta higitzen dituzten harri-bolak txiki-txiki egin arte. **Hau etengabeko prozesua da.**

Posible da baina, sedimentazio-prozesu honetan ere, gizakien esku-hartzea azalera. Gorrondatxeko hondartza hau, hondartza zementatu bezala sailkatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak (2), hots, **zementuak** edo **porlanak** osatua. Nonbait, **labe garaietako hondakinak Abra Badian isuri zituzten 1901.** urtean hasita. Isuri haien karbonato-aberastasunean dago hondar

zementatuen jatorria (2). Bilboko itsasadarreko bokaleko korranteek ekialdera bultzatzeko joera omen dute eta isuriak barnean hartu eta sedimentazioaren prozesuan parte-hartzaile bihurtu zituzten. Ondorioz harri-bola eta hondar tartean, **hormigoizko lauzak eta harriak aurki daitezke (baita adreiluak ere!).**

Balio natural eta antropikoak

Prozesua, erabat naturala da, errezeta ordea, gizakiak goxatu du kasu honetan. Fenomeno hau aldameneko Tunelboka eta Arrigunaga hareatzetan ere gertatzen da; nolana ere, Arrigunaga hondartza orain dela 15 bat urte Bakioko hondartzari hartutako hondarrekin lehengoratu zuten.

Hondartza honen bitxitasunik bereziena horixe da, ene ustez, baina horrez gain, babespean **hainbat balio natural ditu.** Hasteko, duna-sistemak eta hauek finkatzen dituzten landareak berreskuratze-prozesuan daude. Duna horietan, gainera, bestelako fauna bat aurki daiteke, tartean Apo Lasterkaria (*Bufo Calamita*). Gorrondatxan ugalketarako gune babestu bat dauka horrek (7).


Bestalde, egitura geologiko garrantzitsu bat aurki dezakegu bertan, Ypresiar-Lutetiar Mugako Nazioarteko Estratotipo delakoa. EHUko estratigrafo ikerketa-talde baten 25 urteko lanari esker Nazioarteko Estratigrafia Batzordeak erabaki omen du Kubako, Txileko, Tunisiako, Mexikoko, Espainiako eta beste herrialde batzuetako laginak baino garrantzitsuagoak direla. “Duela 50 milioi urte inguruko Lurraren Historiako bertsio ofiziala Gorrondatxeko hondartzan idatzirik dagoena izango da” jakinarazi zion *Berria* kazetari Aitor Payrosek, EHUko irakasle eta estratigrafoak (6).

(2) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, 1990

(5) BERRIA ERREDAKZIOA, 2009

(6) MENDIGUREN, 2009

(7) BIZKAIMEDIA, 2009



Irudia: Maider Uriarte



Zer dira duela 100 urteko hondakin antropiko batzuk 50 milioi urteko formazio natural batzuekin alderatuta?

% 90an antropizatua eta industria-jarduera intentsua jasan duen itsasadar baten inguruan kokatua egoteak berebiziko eragina izan du. Itsasora hondakinak jaurtitzeko deitoragarria eta *desastre* ekologiko gisa ulertu badaiteke ere, Gorrondatxe hondartzako erabiltzaileei izugarri erakargarria egiten zaigu ezinbestean hondamendi horren ondorio diren plataforma zementatu horiek osatzen duten giroa.

Alabaina, artikulu hau idaztean ez dakigu zenbaterainoko kutsadura eragin duen hondakinaren jaurtiketa horrek. Hala ere, 2009an hareatzak hain preziatua den bandera urdinaren izendapena lortu zuen, hamabosgarren aldiz (5). Bandera hori lortzeko, uraren kalitatea, garbitasuna, emandako informazioa, segurtasuna, eskaintako zerbitzuak eta instalazioak aztertzen dira.

EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoaren Aurre-proiektuaren arabera, hondartza katalogatua da bere interes natural eta paisaia-balio altuagatik. Paisaia-aniztasun altua erakusten omen du; ordea, balio intrintseko ertaina du.

Gainera, esan beharra dago, begi bistan bada ere, algek, lapak eta beste bizidunek, bere egin dituztela *barri* horiek (2). Zer esanik ez dago, harribilek bezalaxe, olatu eta haizearen enbaten eraginak jasaten dituztela eta, haiek bezala, hauek ere higatu eta desegiten direla. Berezko osagaiak dira gaur egun, geologoen aburuz “atzoko” kontuak badira ere.


Zalantza

Artikulu honen bidez ez da justifikatu nahi ekintza antropiko hau. Ordea, zalantza bat sortzera bidean idazten da. Nago, hondartza honen xarma delako elementu natural eta artifizialen arteko nahasketan datzala. Elementu naturalen balioa agerikoa bada ere, elementu antropikoek ere badute berena. Alta, *deigarria da balio naturalak nolatan berreskuratu* diren, hau da, prozesu natural bat birsortu da modu antropiko batean. Alderantziz, itsasora botatako hondakin antropikoak, berez fosilizatu dira, prozesu naturalen bidez.

Kostaldea, hainbat araudiren babes-objektua da, Espainiako Kostaldeko Legearena, EAEko itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planarena, besteak beste. Hauetan, kostaldea, bere, horretan babestea eta mantentzera behartzen da. Bere horretan?

Berezko/naturalaren eta artifizialaren arteko eztabaida berria ez bada ere, hondartza honen kasua oso aproposa iruditzen zait kontzeptu horien azterketa egiteko. Are gehiago, kostaldeak eskatzen duen babes-arauari kasu egiten badiegu. Arrigunagako hondartza bezala, Azkorrikoa ere lehengoratu behar ote da? Antropizazio maila jaitsi behar ote da? Bere horretan gorde natura. Kontzeptu horien, “*natura*” eta “*bere horretan*”, hausnarketa eskatzen du baieztapen horrek.

Interesgarria da Perejaume artistaren lan batek sortu nahi duen gogoeta. Lan hartan, artistak harrizko eskulturak lehengoratzeko tekniken bidez Port del Comteko *barri* natural baten berreskuratzea proposatu zuen. Ondorioz galdera batzuk sortzen dira, non aplikatu behar da berreskuratzea? Zein



da naturaren benetako egoera? Hots, berreskuratu nahiko bagenu, zein data aukeratuko genuke erreferente gisa? (1)

Argi dago Gorrondatxe ez dela espazio % 100 naturala (originala), ez da berez sortu. Ez zementazio-prozesuak gizakiak eragin dituelako ezta landarediaren berreskuratzean gizakiaren eskuak parte hartu duelako ere.

Horrek ez du esan nahi babesik behar ez duenik. Baina onartu beharra dago naturaren kontzeptzioa beste bat dela eta, gaur egun, gizakiaren esku dagoela honen berreskuratzea. Beraz, egoera horri *natura* izena ez den beste bat bilatu beharko zaio, adibidez *naturartifiziala*?

Philip Ursprung-ek, "Nature and Architecture" (4) artikuluan, natura ulertzeko moduaren aldaketaren mugarrak finkatzen ditu. Batetik, James Watson eta Francis Crick zientzialariek 1953an egitura genetikoaren irudikapena egin zutenekoa, alegia, helize bikoitzaren 2 m-ko garaiera zuen maketa eraiki zutenekoa. Bestetik, Apolo 8 espazio-ontzitik Lurrari egin zizkieten argazkien argitalpena 1970ean. Lehenengo ekintzak (ADNaren deskodetaketak), [naturaren manipulagarritasuna](#) gure esku dagoela erakusten zuen. Bigarrenak, ordea, Lurra unitertsoaren handitasunaren parean kokatzen zuen [kaltebera/ahula eta, bere horretan osoa den sistema bezala](#).

Gorrondatxe hondartza, manipulagarritasun eta ahultasun horren eredu garbia da. Hondartzaren balio-irakurketa berri bat onartzea proposatzen da, espazio natural ustel/hondatu baina eder gisa ulertzeko, adibidez. Are gehiago, esan genezake [memoria industrialaren aztarna bat ere badela](#). Labe garaiak

desagertu eta haien aztarnak etengabe ezabatzen diren garai honetan, [Gorrondatxen, duela 100 urteko Bizkaiko jarduera industrialaren istorioa ere idatzita aurki dezakegu, fosilizatua bederen](#).

Bibliografia

- (1) EE.AA. (2005): *El paisatge transgredit, Fundació Espais, Girona* [ISBN: 84-930566-8-5].
- (2) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. (1990): *Bizkaiko Interes Geologikoko Guneak/ Puntos de Interes Geológico de Bizkaia, Bizkaiko Foru Aldundia, Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak, Bilbao* [ISBN: 84-7752-029-1].
- (3) RALLO, A. eta ORIVE, E. (2003): *Bizkaiko itsasaldea/ El litoral marino de Bizkaia, Bizkaiko Foru Aldundia, Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundeak, Bilbao* [ISBN: 84-7752-329-0].
- (4) URSPRUNG, P. (2007): "Nature and Architecture", in J. L. Mateo, Architectural Papers I. Natural Metaphor. An anthology of Essays on Architecture and Nature, Actar, Barcelona/New York, 3, 10-21.
- (5) BERRIA ERREDAKZIOA. (2009-07-08): "Bandera urdina Aizkorri-Gorrondatxen", <http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-07-08> -n aurkitua, 2010-03-15ean atzitutako datuak.
- (6) MENDIGUREN, I. (2009-09-27): "Arroketa idatzitako historia", <http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-09-27> -n aurkitua, 2010-02-12an atzitutako datuak.
- (7) BIZKAIMEDIA. (2009-10-16): "Aizkorri hondartza babesteko eskatuko dio aldundiak eusko Jaurlaritzari", <http://www.bizkaia.net/home2/bizkaimedia/> ... -n aurkitua, 2010-02-12an atzitutako datuak

° Maider Uriarte arkitektoa da eta UPV/EHUren Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren 2009ko deialdiko doktoratu aurreko ikerketa-beka onuraduna.

